



KOSTUAK

ANOTHER LIVE plataformaren kostuak ebaluatzeko, ezinbestekoa da bi kostuak bereiztea: alde batetik, hasierako inbertsioa, non bertan negozio idea martxan jartzeko beharrezko kostuak aurkitzen diren eta bestetik, aplikazioa martxan dagoenean sortzen diren kostuak.

Hasierako inbertsioan, plataformen idea abian jartzeko beharrezkoak diren gastuek osatzen dute. Kostu hauek normalean behin bakarrik edo hasierako fasean egiten dira eta beharrezkoak dira plataforma seguru, erabilgarria eta fidagarria izateko.

Gure kasuan, hasieran inbertsio handia egin beharra daukagu eta beraz, hau izango litzateke gure hasierako ezinbesteko kostua:

Kostua	Azalpena	€
Aplikazioaren garapena (Sngularen eskuz)	– Ikonoaren eta aplikazioaren diseinua – Programazioa – Probak	15.000€ - 40.000€
Segurtasun sistema	– Datuen babesa, seguruak	2.500€
Hasierako marketina	– Sare sozialak (Instagram, X eta Facebook) – Publizitatea – Marka irudia –Panfletoak –Hitzaldiak –Kartelak (erakundeen laguntzaz)	3.000€



Webgune ofiziala	– Plataformaren informazio orokorra	700€
Zerbitzariak eta azpiegitura teknologikoa	– Hasierako konfigurazioa eta datu-baseak	3.000€
Lege eta administrazio-gastuak	– Plataformaren sorrera eta lizentziak	1.500€

Guztira (gutxi gorabehera) = 25.700€/ 50.700€

Negozioa martxan egotearakoan kostu finkoak zein aldakorrak sortzen dira, hau da, etengabeko edo aldizkako gastuak ordaintzko beharra dago.

Kostu finkoari dagokionez, hileroko ordaindu behar diren gastuak dira, hala nola, langileen soldata, segurtasun digitala...

Kostu finkoa	Azalpena	€
Zerbitzariak eta hosting-a (interneten eskuragarri egoteko zerbitzua)	– Plataforma martxan mantentzea	800€
Langileen soldata	– Bezeroarentzako arreta eta mantenua	2.500€
Segurtasun digitala	– Datuen babesa eta sistema kontrola	400€
Software - lizentziak	– Ordainketa sistemak	300€
Marketin jarraitua	– Sare sozialak eta promozioak	600€

Guztira (gutxi gorabehera) (hilean) = 4.600€



Kostu aldakorrak aldiz, erabiltzaile kopuruaren edo salmenten arabera aldatzen diren gastuak dira. Kostu hauek handitu edo txikitu egiten dira aplikazioaren erabileraren arabera. Beraz, nahiz eta zifra zehatzik izan ez, ezaugarri hauen arabera txikitu edo handituko da kostu aldakorren kopurua.

Kostu aldagarria	Azalpena
Ordainketa/Pasabideen komisioak	–Transakzio bakoitzeko % txikia
Bidalketa-kostuak	–Amazonen bidezko logistika (bolumenaren arabera)
Promozio bereziak	– Deskontuak edo kanpaina puntualak
Bezeroentzako laguntza gehigarria	– Jarduera handitzen denean

Modu berean, ANOTHER LIVEk ingurune eta gizarte-inpaktuarekin lotutako kostuak ere kontuan hartzen ditu, hala nola, ingurumen-kostuak, non garraioaren ondoriozko CO₂ isuriak eta zerbitzari digitalen kontsumo energetikoa azpimarratzen du bigarren eskuko produktuak sustatuz eta gizarte kostuak txikituz, non diruaren zati bat elkarte solidarioetara bideratzea eta gardentasuna bermatzeko kontrol-sistema nabarmentzen ditu.